

## 8.5. Analogia. Antzekotasuna.

Bi objektu, bi egoera, bi buruketa analogoak dira beren artean antzekotasuna baino zerbait gehiago dagoenean; beren osagaien artean bat datozen erlazioak daudenean.

Analogia bilatzea antzekotasun kasualitate hutsa baino gehiago ote den antzematea da, estrukturala edo funtzionala den ikustea.

Estrategia hau zentzu zabalean buruketa guztietan erabiltzen da. Inork ez du buruketa bat ebazten aurreko ezagutzetan oinarritu gabe.

Ebatzi ditugun egoera, arazo edo jokoekin dauzkagun esperientzien artxiboan antzekotasunak (antza, erlazioak, parekotasunak...) bilatzean oinarritzen den estrategia dugu.

Edozein egoera berriren aurrean, galdera hau egin behar dugu: Zer dakarkigu gogora? Ba al du antzik arazo harekin? ...

Hona hemen adibide batzuk:

1. *Pertsona batek eskailerak maila bateko edo biko saltoa eginda igotzeko ohitura dauka, gogoaren arabera. Zortzi maila dituen eskailera igotzeko zenbat era desberdin ditu?*

Problema honek errazagoa den eta pista berdina duen beste batera eramaten gaitu.

“Batak eta biak batuz, zortzi zenbakia zenbat era desberdinetan lor daiteke?”

Hona hemen aukera batzuk:

$$8 = 2 + 2 + 2 + 2$$

$$8 = 1 + 1 + 2 + 2 + 2$$

$$8 = 2 + 2 + 2 + 1 + 1...$$

Uste dut buruketa amaitzeko gai izango zarela.

2. **SENAR JELOSKORRAK.** *Bi bikote ibai ertzera iritsi dira. Ertz horretan txalupa txiki bat dago. Txalupan aldi berean bi pertsona bakarrik sar daitezke. Senarrak hain jeloskorak dira, ezin baitute jasan emaztea beste gizon baten aurrean egotea beraiek bertan egon gabe. Nola moldatuko dira lauak ibaia zeharkatzeko?*

Begiratu 8.1. ataleko **ARTZAINA, OTSOA, ARDIA eta AZA** buruketa. Bertan emandako pausoak gogoratzea nahikoa izango da buruketa ebazteko.